

# Ezpalak

JON TORNER

## Umoreak eta zirko-jokoek bat egingo dute Arrigorriagan



MAMACREA konpainiak Lonbo aretoan eskainiko duen *¿Se puede?* ikuskizunak irekiko du Arrigorriagako (Bizkaia) Clown eta Pailazoan Nazioarteko Jaialdia, hilaren 7an. Kirolegian izango dira beste emanaldi batzuk, eta herriko kaleak ere clown, pailazo, malabarista, trapezista eta gainerako artisten abildadeen lekuko bihurtuko dira. Kaleko egitaraua Sara Alvarez gasteiztarren eta Diego Bruzzone argentinarraren Circocirto konpainiak (argazkian) irekiko du, hilaren 8an. Jaialdia 10era arte luzatuko da, eta Bizkaiko beste herri batzuk ere bisitatuko ditu, tartean Sondika, Bermeo, Markina-Xemein eta Derio.

## IKTeroak, Europako seigarren blogik onena

BILBOKO Nonick 09 ekimenaren baitan antolatutako Euro Blog Awards lehiaketan Europako hamaika blogik onenak hautatu zituzten. Euskarazko blogen artean IKTeroak (<http://ikteroak.blogsome.com>) izan zen garaile. Ordiziatoko Jakintza Ikastolako irakasle eta ikasleen bloga seigarren tokian geratu zen sailkapen orokorrean. Irabazlea Alemaniako Netzpolitik (<http://netzpolitik.org>) blog politikoa izan zen eta bideoblog onena, berriz, web kulturari zuzendutako Lacomuna.tv ([www.lacomuna.tv](http://www.lacomuna.tv)) telebista saioa. Irabazleak Europako hamabi herrialdeetako lagunez osutako epaimahaiak hautatu zituen. Euskararen ordezkaria Luistxo Fernandez izan da.

**Fermin Muguruza** musikariak zuzendutako *Checkpoint Rock. Canciones desde Palestina* dokumentala estreinatu zuten pasa den astean Donostian, Giza Eskubideen Zinema jaialdiaren barruan. Javier Corcuera dokumentalgilea arduratu da irudiez, eta Palestinako hainbat musikaririk hartu dute parte: Safaa Arapiyat eta Ayman PR rap abeslariak, Kher Fody poeta eta musikariak, Naseem Dakwer biolin joleak... Dokumentalaren inguruko azalpenak eta haren trailerra Fermin Muguruzaren webgunean aurkituko dituzue: [www.muguruzafm.com](http://www.muguruzafm.com).

## Anjel Lertxundiren *Zoaz infernura, laztana* (Alberdania) eleberria 2008ko Beterriko Liburu izendatu dute 111 Akademia-ko kideek. Oriotarra da 1996an Manuel Larramendi Kultur Bazkunak abian jarri zuen Beterriko Liburu Saria bigarren aldiz irabazi duen lehen idazlea; 2002an ere bere obra bat izan zen irakurleen artean gogoena, *Zorion perfektua*, hain zuzen ere. Sari bana-keta ekitaldia hilaren 7an egingo da, Zizurkilgo Olentzo jatetxean.



**Rui Toscano**, Filipa Cesar, Rosalind Nashashibi, Anri Sala eta Marine Hugonnier artisten bideoak jaso ditu Donostiako Tabakalera ikusgai dagoen *Look again* erakusketak.

**Unai Gaztelumendik** irabazi du Hernandorena bertso sariketa. Aiherran (Nafarroa Beherea) jokatutako finalean Patxi Iriart izan zen bigarrena, eta Ekhi Erremundegi hirugarrena.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

**GUIKURI**  
nekazal etxea

Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)  
T 945 464084 / 615782323  
[guikuri@euskalnet.net](mailto:guikuri@euskalnet.net)  
[www.guikuri.com](http://www.guikuri.com)



# Abarak

ESTITXU EIZAGIRRE

## Mintzola Fundazioak badu zuzendaria: Josune Zabala

AHOZKOTASUNAREN iker-  
gunea da Mintzola Funda-  
zioa eta patronatua honako  
erakundeek osatzen dute:  
Bertsozale Elkarte, Eus-  
kal Herriko Unibertsitatea,  
Gipuzkoako Foru Aldun-  
dia, Kutxa eta Villabonako  
Udala. Joxerra Garziak  
egindako txostena da  
proiektuaren oinarri, eta  
txostenaren arabera Min-  
tzola “ahozko tradizioaren  
behatzaile dinamikoa izan-  
go da eta gaurko gizarteak  
ahozkotasunaren alorrean  
dituen premiei erantzungo  
die”. Hau guztia aurrera  
eramateko, ahozkotasuna  
ikertzen duten beste erakundeekin elkarlanean arituko da  
Mintzola (unibertsitatearekin, Bertsozale Elkartearekin...):  
alor bakoitzean diren hutsuneak ikusi eta proiektuak elkarre-  
kin sortuz. Ikertzeaz harago, ikertutakoa gizartean aplikatzea  
da Mintzolaren helburua.



GORKA TOLOSA

**Errezilgo Atala kultur taldearen  
bultzatzaile ere bada Zabala.**

Proiektuari tira egiteko, patronatuak aukeratu du zuzenda-  
ria: Josune Zabala. “Ahozkotasuna” zaku zabalean zer sar-  
tzen den galdetu diogu: “Ahozkoak daude, alegia, genero  
desberdinak, ez ahazkotasun bakar bat: hitzaldia, bertsoa,  
ipuin kontaketa, esaera zaharrak, elkarrizketa... Zer ahazko  
dauden diagnostikatu behar dugu, eta zer ikertu eta zer bul-  
tza nahi dugun erabaki?”.

Josune Zabala (Errezil, 1978) formazioz eta lan eskar-  
mentuz, bete-betean da ahazkotasunaren mundukoa. Euskal  
Filologian lizentziatua eta doktorego ikasketak burututakoa,  
*Kortesia estrategia pragmatikoak* eta *Kortesiaren azterketa enskaraz-  
ko bi debateetan* ikertu ditu. Ikerlari izan da azken bi urteotan  
lanbidez, EHUko Psikolinguistika Laborategian, EJE (Eus-  
kararen Jabekuntza eta Erabilera) taldean. Eta 2004tik  
2007ra, berriz, Mondragon Unibertsitateko irakasle aritu da,  
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean. Hemen  
ere hainbat ikerketa proiektutan parte hartu zuen, *Ahozko  
bizkuntza derrigorrezko hezkuntzan*, eta *Esku-hartze psikopedago-  
gikoa testuinguru kulturantzetan*, besteak beste. Horrez gain,  
Errezilgo Atala kultur taldearen motorretako bat da: *Zoko-  
mian* hilabetekaria jarri zuten martxan iaz, eta erredakzio  
buru da geroztik. Atala kultur taldeak egindako “Gari lanak  
Errezilen” proiektuaren arduradun izan zen. ■

## Atxaspi Hotela



*ametsetan bezala.*

Bittiria 24

Lesaka (Nafarroa)

T 948 637 536

hotela@atxaspi.com

www.atxaspi.com